

Aurrez aurreko ekitaldiak Lekunberrin eta Irunberrin, digitalizazioan aurrera egin nahi duten profesionalentzat.

IRIS Gunea *Nafarroako Digitalaren Berrikuntza Gunea da*, eta bere helburuetako bat Nafarroako enpresen eraldaketa babestea eta bizkortzea da. Guneak, Nafarroako Gobernuak koordinatuta, eraldaketa digitaleko prozesuen esparruan aitzindari diren 37 erakunde publiko eta pribatu elkartzen ditu.

Nafarroa digitalizatzeko leihatila bakarra izanik, IRIS Guneak *orientazioa, aholkularitza teknikoa, prestakuntza, entsegu-espazioak eta laguntzei eta finantzaketa-iturriei buruzko informazioa ematen ditu*. IRIS Guneak enpresen kontsultak jasotzen ditu, bideratu egiten ditu edo elkartutako erakunde espezializatueta birbideratzen ditu.

Zertan lagun diezazuke IRIS GUNEAK?

IRIS GUNEak ematen dituen zerbitzuez nola balia zaitezkeen zehatz-mehatz azaltzeko, Cederna Garalur Elkarteak *Lekunberrin (otsailaren 8a) eta Irunberrin (otsailaren 13a) antolatu dituen aurrez aurreko saioetan parte hartzera gonbidatzen zaitu*.

Hitzaldiak laburrak izanen dira, 1,5 ordu ingurukoak, gutxi gorabehera, eta gure lurraldean digitalizazioaren alde egin duten bi enpresa txikiren esperientzia bertatik bertara ezagutzeko aukera emanen digute. Haien testigantzak prozesu hau nola bizitzen ari diren eta haien negozioaren hazkundera nola eragin duen ezagutzen lagunduko digu.

Hitzaldiak, batez ere, gure lurraldeko lanbide-sarera bideratuta daude. Hitzaldiak, halaber, digitalizazioarekin bere burua identifikatuta sentitzen duen eta erronkak nola gainditu jakin nahi duen pertsona ororentzat zabalik daude.

EMAN IZENA GURE EKITALDIETAN:

LEKUNBERRI.

2024ko Otsailaren 8a. 15:00etan.

Plazaola turismo informazioko zentroa.

Gonbidatutako kasu praktikoak

KUDEA GO.

Floristería Lorea

IRUNBERRI.

2024ko Otsailaren 13a. 16:30etan.

Ilunberriko gizarte etxea (Klaustro plaza, 10).

Gonbidatutako kasu praktikoak:

Los Jabones de Montse.

Granja Escuela de Ultzama.



Izen-ematea



Izen-ematea